



Ikastetxearen Hizkuntza Proiektuak hizkuntzen erabilerari eta haien ikas-irakaskuntzei lotutako erabakiak biltzen ditu. Koherentzia eman nahi dio ikastetxeko hizkuntzen trataerari.

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua

2023 | 2027

CEIP MIRIBILLA HLHI

1. Sarrera. Zertarako Hizkuntza Proiektua?	XX
2. Egoeraren analisisa. Nortzuk gara eta non gaude?	XX
2.1. Ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak	XX
2.2. Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzei dagokienez	XX
3. Ikastetxearen hizkuntza helburuak. Zer nahi dugu?	
3.1. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren printzipioen zehaztapena hizkuntzei dagokienez	XX
3.2. Planteamendu eleanitza	XX
3.3. Helburuak	XX
4. Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua	
4.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua. Norekin eta zein hizkuntzatan?	XX
4.2. Eremu didaktiko-metodologikoa. Nola irakasten ditugu hizkuntzak?	XX
5. Plan Estrategikoa. Zer egingo dugu?	
5.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua	XX
5.2. Eremu didaktiko-metodologikoa	XX
6. Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioa	XX

1. Sarrera. Zertarako Hizkuntza Proiektua?

Dokumentu honen helburua da CEIP MIRIBILLA HLHI ko hezkuntza-komunitateak hizkuntzaren arloan hartu dituen adostasunak jasotzea. Ildo horretan, dokumentu honen helburua izango da ikastetxean elkarrekin bizi diren hizkuntza guztien presentzia eta erabilera diagnostikatzea, ikasle eleaniztunak prestatzeko hizkuntza-helburuak adostea, eta adostutako hizkuntza-helburuak lortzeko hainbat eremutan egin beharreko jarduerak planifikatzea eta ebaluatzea.

Hizkuntza proiektuaren helburua Ikastetxearen hizkuntza-proiektua landu eta ezartzea hezkuntza-komunitatea inplikatzea eta parte hartzeko mekanismoak bultzatzea da, Ildo horretan, arreta berezia eskainiko zaie Liburuaren Eguna, Olentzero, Inauteriak, Urte Amaierako Jaialdia, Agate Deuna... bezalako jaialdiei, ikastetxearen hizkuntza-aberastasuna jorratzeko eta euskal kultura ezagutarzteko.

Gure ikasleek bi hizkuntza ofizialetan konpetenteak izateko.


Euskarak garapen osoa lortzeko.

Ingelesean ere konpetenteak izateko.

Hizkuntzei koherentzia emateko.

Hizkuntzei lotutako erabakiak antolatu eta osatzeko.

Hizkuntzen arteko bizikidetza bermatzeko.



Gure hizkuntza proiektua definitzeko, eskolako komunikazio-testuingurua eta inguru sozio-linguistikoa aztertu ondoren hizkuntzekiko esku-hartze eremuak identifikatzearen beharra ikusten da.

Beraz, esku-hartze eremuak identifikatu eta sailkatu ditugu

ESKU-HARTZE EREMUAK

EREMU PEDAGOGIKOA

KURRIKULARRA

EZ
KURRIKULARRA

EREMU INSTITUZIONALA

FAMILIAK

INGURUNEA

EREMU PEDAGOGIKOA KURRIKULARRA

CURRICULO PROIEKTUA:

- Curriculo integratua,
- Beste arloetako curriculum globalizatua
- Euskal kultura
- Metodologia
- Irakurketa Plana (anexo I)

EREMU PEDAGOGIKOA EZ KURRIKULARRA

GUNEAK, ZERBITZUAK

- Jolasaldiak
- Jantokia
- Eskolaz kanpoko ekintzak

EREMU INSTITUZIONALA

FAMILIAK

- Eskola eta gurasoen arteko harremanak
- Familia barruan euskararen erabilera indartzea

INGURUNEA

- Administrazioarekin harremanak
- Auzoko erakundeekin harremanak
- Beste ikastetxeekin harremanak

2. Egoeraren analisisia. Nortzuk gara eta non gaude?

2.1. Ikastetxearen eta inguruaren ezaugarriak

Ikastetxeak kultura-aniztasuna du ezaugarri, familien jatorriari dagokionez. Hizkuntzari dagokionez, % 100ek ez du euskara ezagutzen, ezta erabiltzen ere. Gainera, legezko tutoreek gutxi parte hartzen dute eskolako bizitzan. Oro har, espektatiba txikiak dituzte, eta, kasu askotan, bertaratze irregularraren ondorioz, errendimendu akademiko txikia izaten dute. Gainera, familien mugikortasunak ikasturtean zehar ikasleen altak eta bajak ohikoak izatea eragiten du.

2.2. Ikastetxearen ibilbidea hizkuntzei dagokienez

Miribilla ikastetxe publikoa Vitoria-Gasteiz kaleko 5. zenbakian dago, Miribilla auzoan, Ibaiondo barrutian, eta Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzen ditu. San Frantzisko ikastetxe zaharrean sortu zen eta 2004an, Zabala ikastetxearekin bat egin ondoren, San Francisco-Zabala izena hartu zuen.

Hasieratik hizkuntza bi eredu izan ditu, A eta D ereduak. Gaur egun A eredu eskolan desagertzeaz dago 6. mailako gela bakarra dagoelako. Beraz, 2024/2025 ikasturtetik aurrera D ereduko ikastetxea izango da.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan 2020/2021 ikasturtean egindako ebaluazio diagnostikoaren analisiak batez bestekoaren azpitik dauden emaitzak erakusten ditu, batez ere hizkuntza-gaitasunari dagokionez; beraz, gure helburua hobekuntza izango da.

Izan ere, euskara gainerako funtsezko gaitasunak ikastea ahalbidetzen duen komunikazio-hizkuntza da.

3. Ikastetxearen hizkuntza-helburuak. Zer nahi dugu?

3.1. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren printzipioen zehaztapena hizkuntzei dagokienez

- **Hizkuntza-hezkuntza eleanitza**
 - Funtsezkoa da errealitatea ulertzeko, pentsamendua adierazteko, arrazoitzeke, ezagutza transmititzeko, mundua ikusi eta ulertzeko, eta besteekin harremanak izateko, existitzeko beharrezkoak diren tresnak eta baliabideak eskainiz.

- **Curriculumera sartzeko unibertsaltasuna.** Kalitatezko hezkuntzaren bidez benetako integrazioaren aukera ahalbidetuko du, berdintasuna, parte-hartzea eta hezkuntza-arrakasta lortzeko biderantza Eskola-komunitateko kide guztien artean euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea.

- **Ikasle guztiengan ingelesaren ezagutza sustatzea.**

Ingurune geografiko eta sozioekonomikoan sustraituta dagoen kultura-nortasuna balioestea eta kulturarteko ikuspegi global batetik goragoko etapetarako trantsizio egokia ziurtatzea.

3.2. Planteamendu eleanitza

Aniztasunari erantzuteak esan nahi du erantzun egokia ematea ikasleen gaitasunei, beharrei, interesei eta ikasteko estilo kognitiboari. Gizabanako bakoitza bakarra da eta bere garapen-erritmoa du, eta hura definitzen duten ezaugarriak modu pertsonal eta dinamikoan eraikitzen ditu, bizitzen ari den esperientzien, egon daitezkeen desberdintasunen eta prozesu honetan ematen zaion laguntzaren arabera. Gure eskolak hasierako desberdintasun posibleak konpentsatzen saiatu behar du, ikasleen garapen ekitatiboa, globala eta harmonikoa ahalbidetuko duten hezkuntza-, kultura- eta teknologia-esperientziak eskainiz.

Irakasle-taldeak ikasleen desberdintasun pertsonalak kontuan hartu eta errespetatu beharko ditu, eta programazio eta proposamen ireki eta malguak egin beharko ditu, praktikara eramatean irakaskuntza-prozesua ikasle bakoitzaren behar pertsonaletara egokitzeko.

Hizkuntza Indartzeko Programarekin (HIPI) eta Harrera Planarekin, ikastetxeak ikasle iritsi berriei harrera eta inklusioa errazten saiatzen da, haien gaitasunak garatzen laguntzen die eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten sustatzen du.

KANPOKO ESPARRUAN Ikastetxeak dituen kanpo herremanak

Bidaltzen diren idazki ofizial guztiak bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz) egongo dira.

Ahozko komunikazioan, telefono deiak euskaraz erantzuten jarraituko dugu, eta hartzailea zein den kontuan izanda, ulertzen duen hizkuntzan arituko gara.

3.3. Helburuak

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA HELBURUAK

HELBURU PEDAGOGIKOAK

- Euskara ardatza izatea, kultura eta hizkuntza aniztasuna kontuan hartuta.
- Ingurune sozio-linguistikoa kontuan hartuta euskararen erabilera indartzea eta gaztelaniaren erabilera ere hobetzea.
- Ingelesa arloa izanda bere esparrua izatea.

HELBURU KURRIKULARRAK

- Euskaraz eta gaztelaniaz ahozko zein idatzizko mezuak autonomiaz eta sormenez ulertu eta ekoitzi komunikazio gaitasuna hobetzeko.
- Euskal Herriko hizkuntza propioa ahalik eta eremu gehienetan erabiltzeko konpromisoa azaldu eta gure kultur ondarea ezagutu eta estimatu.
- Ingelesari dagokionez, eguneroko testuinguru ezagunetan eta gai orokor eta arruntei buruzko ahozko nahiz idatzizko mezu sinpleak ulertu eta ekoitzi komunikazio gaitasuna hobetzeko.
- Hizkuntza eta kultur aniztasuna aintzat hartu errespetuzko eta konpromisozko jokabidea garatzeko.

HELBURU EZ KURRIKULARRAK

- Ikasleen arteko harremanak euskaraz izan daitezen ahalegindu komunikazio gaitasuna hobetzeko.
- Euskal ekimen kulturalak sortu eta beste erakundeek proposatutakoetan parte hartu eskola ingurunera zabaltzeko.

HELBURU INSTITUZIONALAK

Antolaketa mailakoak

- Eskolako funtzionamendu organoetan, ahal den neurrian, gauzatzen diren harremanetan euskararen nagusitasuna indartu eta bideratu.
- Ikastetxeko giroa euskalduna izateko hizkuntza proiektuan adostutakoa aplikatu.
- Eskolako dokumentazioan erabilitako euskara gaurkotu eta egoki eta zuzen idazten saiatu.

Harreman mailakoak

- Familiek eskolarekin harremanak euskaraz izan ditzaten saiatu.
- Euskaldunak ez diren familietan euskararekiko errespetua eta zaletasuna landu.
- Administrazioako erakundeekin izaten diren harremanetan euskararen nagusitasuna sendotu.
- Eskolan eta bestelako eragileen arteko askotariko harremanetarako hizkuntza irizpideak ezarri.
- Euskararen alde ari diren erakundeekin elkarlanerako harremanak ezarri.

4. Ikastetxearen Hizkuntza Planteamendua

4.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua. Norekin eta zein hizkuntzatan?

IKASTETXEAREN HIZKUNTZA PLANTEAMENDUA

BARRUKO ESPARRUAN

Funtzionamendu-organoak

Ordezkaritza Organo Gorena

- OOGren bileretan, hasierako eta bukaerako agurrak euskaraz egingo dira beti.
- OOGko partaideei dagokienez, (zuzendaritza, iralasleek euskera badakite, gurasoek ez.
- OOGren bileren aktak elebidunak izango dira. Lehenetsiko da gaztelania gurasoek ulertu ahal izateko

Klaustroa. Pedagogia Batzordea. ziklo bilerak. mailako bilerak, proiektuetako batzordeak

- Ikastetxeko bilera guztiak euskaraz.
- Formazio-saioak euskaraz egingo dira, eta aurkeztutako materiala euskaraz egon dadila saiatuko gara.
- Gaia interesgarria denean eta euskaraz egitea ezinezkoa denean, formazio- saioak gaztelaniaz egingo dira.
- Barruko dokumentazioa, klaustroak erabiltzen eta sortzen duena, euskaraz idatzita egongo da.
- Familiek parte hartzen duten batzordeetan aurkeztu beharreko dokumentuak gaztelaniara itzuliko ditugu (ikastetxean idazten diren dokumentu guztiak euskaraz sortuak dira).

Guraso Elkartea

- Bilerak: haien arteko bilerak erderaz egiten dituzte. Agurrak euskeraz egiten dituzte.

Eskolaz kanpoko jarduerak:

- **Etorkizuna musikatan** Guraso Elkarteak antolatzen ditu jarduera hauek, eta ikastetxeko espazioak erabiltzen ditu. Jarduerak eskola-orduetatik kanpo egiten dira: eguerdian.
- **Herri kirolak** jarduera hau euskaraz antolatzen du
- **Familien formakuntzak:** erderaz bakarrik eskeintzea erabaki zuten.
- **Bidaltzen dituzten** ohar, deialdi eta informazio guztiak bi hizkuntzetan egiten dira beti.

Hizkuntzen erabilera harremanetan

Irakasleen arteko harremanak

Irakasleen arteko harremanak euskaraz izango dira.

Ikasleen arteko harremanak

- Ikasleen arteko harremanak euskaraz izatea dugu helburua vaina oso zaila da. Haien harremanak eskolatik kanpo gaztelaniaz dira eta..
- Gure inguruan nagusi den hizkuntza gaztelania dela jakinda, ikastetxean indartu behar den hizkuntza euskara da. Ikasleek euren artean euskararen erabilera bultzatzeko jarduerak antolatuko dira eta Urteko Planean zehaztuko dira. (euskararen eguna, herri kirolak, inauteriak, talo eguna, Agate Deuna, Idazleekin solasaldiak...)
- Ikasleek euren artean gehienbat gaztelania erabiltzen dutela kontuan harturik, ez dugu neurri berezirik behar gaztelania indartzeko. Gaztelania erabiltzen dutenean, erarik egokienean erabil dezaten saiatuko gara.

Irakasleok ikasleekin

- Irakasleok eskolak ematen ditugunean, euskaraz, gaztelaniaz edota ingelesez arituko gara, arloaren arabera. Hau da, irakasleok gaztelania erabiliko dugu Gaztelania arloan eta ingelesa Ingelesa arloan.
- Gelatik kanpo, ikasleek irakasleekin hitz egiten dutenean, euskara erabiltzea eskatuko diegu.
- Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek euskaraz jasoko dute beti laguntza. Egoeraren arabera, gaztelania ere erabiliko da materiala horrela sortua badago.

Langile ez irakasleak

- HPBko hezitzaileen eta ikasleen arteko harremanak beharren arabera euskaraz egingo dira. Egoeraren arabera, gaztelania ere erabiliko da.

Langile ez irakasle gehienek (atezainek, begiraleek, jantokikoak...

- harremanetan erabiliko duten hizkuntza euskara izango da.

Familiekiko bilerak

Banakako bilerak

- Familiak, tutore edo irakasleekin elkartzen direnean, aukera izango dute gaztelaniaz zein euskaraz jarduteko. Esan behar da aukera izan arren, euskara ez dutela ezagutzen eta gaztelania izango dela hizkuntza nagusia.
- Euskara edo gaztelania ez dakiten familiei, laguntza eskeiniko zaie google traduktorearekin edo teleinterpretazioarekin.

KANPOKO ESPARRUAN

Ikastetxeak dituen kanpo herremanak

- Bidaltzen diren idazki ofizial guztiak bi hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz)
- Ahozko komunikazioan, telefono deiak euskaraz erantzuten jarraituko dugu, eta hartzailea zein den kontuan izanda, ulertzen duen hizkuntzan arituko gara.

Dokumentazioa

- Barruko dokumentazioa, irakasleriak erabiltzen duena, euskaraz idatzita egongo da; euskaraz sortuko dira ikastetxeko dokumentuak. **Familiek** parte hartzen duten batzordeetan aurkeztu beharreko dokumentuak gaztelaniara itzuliko ditugu.
- Familiei zuzendutako dokumentuak hizkuntza bietan idatzita egongo dira, baina betiere lehentasuna emango zaio euskarari, euskarazko testua ezkerrean edo goialdean kokatuta eta nabarmendurik.

4.2. Eremu didaktiko-metodologikoa. Nola irakasten ditugu hizkuntzak?

METODOLOGIA

Erabiltzen dugun metodologiak ikaskuntzak sortzeko aukera ematen du, azken ekoizpen bat egiteari esker. Etapa batzuen bidez, ikasleak lankidetzan aritzen dira, irakasleak gidatuta, problematika bati erantzuteko, egoera bat ebazteko edo galdera bati erantzuteko, haien interesa pizten duen gai batean oinarrituta.

Oso garrantzitsua da ikasleek benetako problematika bati aurre egitea, eta hori ikerketa-ekintza prozesu bati jarraituz konpondu beharko dute.

Ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak modu interdiziplinarrean eta elkarlanean mugiaraziz.

Metodologia aktiboa da, eta ikasleak dira beren ikaskuntzaren protagonistak.

Metodologia horrek ikaslea du ardatz, ikasten duten subjektuak baitira, eta ez hainbeste irakaslea, baizik eta ezagutzak transmititzen dituena.

Diziplinartekotasunak eta jakintzak mundu errealean aplikatzeak zentzua ematen diete ikaskuntzei, eskola-loturarik eza saihesten dute eta XXI. menderako gaitasunak eskuratzen laguntzen dute.

Metodologiaren faseak:

1- Planteamendua eta lan-plana:

- Helburuak finkatzea. Aukerak aurkez daitezke edo gaiak libreki aukera daitezke.
- Taldeak antolatzea (egonez gero) eta erantzukizunak banatzea, guztiek erantzukizunak eta eginkizunak beren gain har ditzaten.

2- Inplementazioa

- Informazioa ikertzeko, bilatzeko, tratatzeko eta aztertzekeo prozesua.
- Ikasleen eta irakasleen arteko elkarreraginak (orientazioa, jarraipena).
- Ikasleek aukeratzen duten azken produktu bat sortzea (aurkezpena, infografia, muralak, erakusketa, bideoa, abestia, diskurtsoa, inkesta, jokoa, lehiaketa, eztabaida...)

3- Aurkezpena

- Jardueraren bat edota azken emaitza jendaurrean aurkezteko aukera.

Jendaurreko aurkezpenak motibazioa areagotzen du.

4- Emaitzen ebaluazioa

- Prozesuaren feedbacka

HIZKUNTZA BAKOITZAREN ESPARRUAK ETA FUNTZIOA

- x **Euskara.** Ikastetxeko hizkuntza nagusia euskara izango da, eta, ahal izanez gero, egoera guztietan erabiliko da.

- x **Gaztelania.** Ikasgai gisa lantzeaz gain, komunikazio-tresna moduan ere erabiliko da hainbat egoeratan (euskara ez dakitenekin).

Euskara izango da, arestian aipatu bezala, eskolaren arlo desberdinen irakaskuntzarako eta komunikaziorako tresna nagusia.

Gaztelaniaren kasuan aldiz, euskara hizkuntza lorpen-maila bera lortu behar dugu. Horretarako, gure inguru soziolinguistikoan duen nagusitasunak sortzen dituen aukerak baliatuko gara. Hizkuntza hau 1. mailatik aurrera ikasiko da, ingurunean jasotako ezagutza informalean oinarrituta progresiboki erabilera formal eta akademikoa landuz.

Ingelesaren gutxieneko esposizio denbora ziurtatzeko, eta hura ahalik eta era orekatuenean banatzeko, 4-12 urte bitartean emango da.

Hizkuntza idatziaren irakaskuntza:

Euskara. Ikasleek 2 urteko gelatik aurrera hurbilketa egingo dute.

Gaztelania. Ikasleek LHko 2.mailatik aurrera landuko dute hizkuntza idatzia.

Ingelesa. 3 urteko gelatik aurrera hurbilketa egingo dute.

AHOZKOA LANTZEKO:

- Edozein pertsonaren deskribapenak egitea, ahoz, errealitatea aztertu eta ulertu ahal izateko.
- Barne egoerak adieraztea, emozioen identifikazioen bidez, norbere bere burua ezagutzan sakondu eta modu emozional osasuntsuan erlazionatzeko .Gustuak eta nahiak adieraztea, formula egokiak erabiliz, nor bere burua ezagutzan sakondu eta elkarbizitzarako baliogarri diren jarrerak barneratzeke .
- Gaiari lotutako abesti eta asmakizunak lantzea, irakurketa, entzumena eta ahozko adierazpen bitartez hizkuntza aberasteko
- Errezeta bat azaltzeko gai izatea, interneten topatuz, ahozko adierazpenaren bitartez hizkuntza aberasteko
- Entzundako edo irakurritako berri bat kontatzea , gizarte hedabideak erabiliz , inguru hurbileko gaurkotasunari hurbiltzeko.
- Lantzen ari garen mapa kontzeptuala azaltzea, besteen aurrean egindako aurkezpenaren bidez, landutako edukiak birpasatzeko
- Berdinen arteko elkarrizketak egitea,informazioen eta bizipenen kontakizunen bidez, era egokian komunikatzen ikasteko.
- Elkarrizketa arauak errespetatzea, komunikazio-trukearen harreman arauak erabiliz (itxarotea, entzutea, txandak eta koherentziaz erantzutea) , gizarte komunikazio egoeratan behar bezala jokatzeko.
- Ipuina asmatzea, klasekideei kontatuz eta arauak errespetatuz, diskurtso propioaren antolaketan lagungarri izateko.
- Asmakizunak asmatzea eta sortzea, binaka lanean, sormena eta elkarren arteko lana sustatzeko.
- Lantzen ari garen mapa kontzeptuala azaltzea, besteen aurrean egindako aurkezpenaren bidez, landutako edukiak birpasatzeko

- Gaiei lotutako testuak azaltzea (landareak , ekonomia), emandako eta interneten topatutako materialetan oinarrituta , era egokian komunikatzen ikasteko.
- Azalpen testu ezberdinen laburpena egitea , ikasitako pausuak jarraituz, ideia garrantzitsuenak diskriminatzen jakiteko
- Ikakide batekin erreportaia bat asmatzea , elkarrizketaren arauak errespetatuz , sormena eta elkarlana sustatzeko.

IKASTURTEKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

Ahozkoa

•**Landutako estrukturak erabiliz modu egokian, gustuak eta nahiak adierazteko esaldiak era egokian eraikitzen ditu.**

•**Gelan lantzen diren abesti eta asmakizunetan gustura parte hartzen du.**

•**Errezeta, mapa kontzeptualak, elkarrizketa, azalpen testuak, menua, ipuina, deskribapenak, erreportaia, albistea... aurkezten ditu.**

METODOLOGIA

AHOZKO ADIERAZPENA

Errespetua, elkarrizketaren arauak, besteen iritziaren balorazioa... lantzeko asmotan, egunero ahozko adierazpena bultzatuko dugu: sentimenduak, emozioak, nahiak, gustuak, eguneroko bizipenak... Egunero tutoretza saioetan.

Tradiziozko ahozko olerkiak, asmakizunak, ahokorapiloak... Astean behin, ostiraletan hamar minutu.

TESTU MOTA EZBERDINEN AURKEZPENA

- Egunero zientzietako saioaren zati bat ahozkoa lantzeko erabiliko da.
- Tarte horretan argi izan behar dugu ahozko jardunak duela lehentasuna.

- Saioan landuko diren edukiak astean zehar zientzietan landutakoarekin lotura izango du.
- Taldeko zein bakarkako lana izango da. Norberak dagokion aurkezpena egingo du (mapa kontzeptualak, azalpen testuak, errezeta, menua, ipuina, deskribapenak, erreportaia, albistea...)

TALDEKO LANA

- Beraien artean euskara erabiltzeko ahalegina ikusi nahi dugu.
- Hori bai, badakigu batzuk ez dutela nahi bezalako erraztasunik eta **lagunduko diegu**. Saiatzea nahi dugu eta lagunduko diegu ahalegin horretan. Gainera, ahalegin hori ere asko baloratuko dugu.

Gurekin harremana euskaraz finkatzera begira:

Ikasleekin hizketan ari garenean, eta **ikasleren batek ez badigu euskaraz egiten**: elkarrizketan bertan ahalegina eskatuko diogu (*esan orain euskaraz, ziur badakizula hori euskaraz esaten, lagunduko dizut hori euskaraz esaten*) eta errepikatu arazi egingo diogu. Ahalegina sumatzen badugu **errefortzu positiboak** ere emango dizkiegu (*ikusten, gero eta hobeto egiten duzu, oso pozik nago, azkenaldian beti euskaraz egiten didazu, horrela jarraitzen baduzu...*).

Beraien artean euskararen erabilera indartzera begira:

Beraien arteko elkarrizketan sartuko gara.

Gure laguntzaz elkarrizketa euskarara bideratzen saiatuko gara. Hasiera batean, modu ahalik eta naturalenean (elkarrizketan parte hartuz) eta beharrezkoa bada modu esplizituan eskatuz: elkarri galderak egin arazi, elkarrizketa moztu eta errepikatzeko eskatu...

Ahalegina ere baloratuko dugu eta errefortzu positiboak emango dizkiegu.

Zenbat eta gehiagotan laguntzen diegun orduan eta errazago egingo dute eta orduan eta naturalagoa irudituko zaie.

5. Plan Estrategikoa. Zer egingo dugu?

5.1. Harremanen, kudeaketaren eta antolaketaren eremua

Hizkuntza arau-sistema hutsa baino gehiago da: hizkuntza esanahiak sortzeko tresnarik garrantzitsuena da, eta **erabiliz** ikasten da.

Komunikazioa irakaskuntza-ikaskuntza estrategia nagusia izanik, ezinbestekoa da, ahoz zen idatziz, ulermena eta adierazmena neurri berean landuz eta garatuz hizkuntza konpetentzia lortzea.

Komunikazio horrek, hainbat baldintza bete beharko ditu:

1. Testuinguru aberatsa non testu-genero anitzak landuko diren
2. Komunikazio-egoera esanguratsua, eta sekuentzia didaktikoetan egituratua. Non helburu hori lortzeko jarduera guztiak artikulatzen diren.
3. Prozedurak eta goi mailako estrategia kognitiboen garapenean zentratuta: hizkuntza ezagutzea eta erabiltzeaz gain, hitzekin gauzak egiten jakitea.
4. Hizkuntzaren gaineko gogoeta bultzatzen duena, gramatikaren trataera funtzionala eta kontestualizatua izango da. Hau da, gramatika, dugun zereginari erantzuteko erabiliko da.
5. Interakziozkoa, ikasleen artean, eta, irakasleen eta ikasleen artean emango dena bultzatuz, lankidetzak ikaskuntza indartuz. Ikasketa autonomia eta kooperatiboa bideratzen dituzten taldekatzeak sustatuz. Ikasleen ahozko hizkuntza ingurunearekin eta ingurukoekin elkarreraginean eraikiko da. Ikasleek besteekin elkarlana egin behar dute ezagutza berria eraikitzeko, norberaren ideiak eta ezagutzak azalduz, besteak erkatuz eta argudiatuz.

Aurreko baldintza horiek betetzeko, ekintza oinarri duen ikuspegi metodologikoa hautatu behar da, eta ikaskuntza aktiboa bultzatu. Hau da, komunikazio-proiektu adierazkorrak planifikatu behar dira hizkuntzen ikasgaietan, eta komunikazio-zeregin zehatz bat lortzera bideratutako jarduera-sekuentzien inguruan antolatu behar da ikaskuntza; horrez gain, prozedurazko edukiak lehenetsi behar dira

Horretarako, denok metodologia honetaz jabetu behar dugu eta estrategiak partekatu behar ditugu. Irakasle bakoitzak bere arloko berezko hizkuntza beharrei erreparatu behar die, arloko edukiaz gain, hizkuntza aldetik dagokion testu- generoa ahoz zein idatziz ezagutu eta lantzeko.

Hizkuntzaren jabetutzan bost dimentsio hauek landuko dira:

- x **Ahozko ulermena:** dimentsio honek hizkuntzaren erabileraren bi arloekin batez ere du zerikusia: personen arteko harremanekin eta komunikabideekin.
- x **Ahozko adierazpena:** dimentsio honen baitan berariazko trebetasun batzuk menderatu behar dira, hainbat komunikazio egoerata egokitutako ahozko diskurtsoak ekoizteko.
- x **Idatzizko ulermena:** dimentsio honek informazioa tratatzeko eta aukeratzeko oinarrizko trebetasunak biltzen ditu.
- x **Idatzizko adierazpena:** dimentsio honen baitan komunikazio-egoera desberdinetara egokitzen diren testu koherenteak eta zuzenak ekoiztea dago.
- x **Ahozko elkarreragina:** honek, esanahiaren negoziazio partekatuari eta arau soziokomunikatiboak errespetatzeari lotutako oinarrizko trebetasun, ezagutza eta jarrerak biltzen ditu.

Hori aurrera eramateko, metodologia horretara gehien egokitzen diren material didaktikoak aukeratuko ditugu.

5.2. Eremu didaktiko-metodologikoa

Eskolaren lehentasunezko helburua da ikasleek bi hizkuntza ofizialak ongi jakin eta erabil ditzaten bermatzea. Horrek esan nahi du ikasleek egoki, eraginkortasunez eta gero eta formaltasun eta konplexutasun-maila handiagoan erabili behar dituztela bi hizkuntzak erabilera-esparru guztien komunikazio-egoera ugarietan.

Derrigorrezko hezkuntza amaitzen dutenean ikasle guztiek ongi menderatu behar dituzte bi hizkuntza ofizialak eta gainera atzerriko hizkuntza bat.

Ikasturte hauetan euskararen erabilera hobekuntzarik eman ez dela ikusi dugu gure eskolan, D eredu inplantaturik egon arren. Euskararen erabilera areagotu, sustatu, hobetu eta hizkuntza akademiko esparruan soilik erabiltzetik harremanetarako hizkuntza bilakatzea da gure helburu nagusia. Horretarako ere, gurasoek formakuntza jaso beharko dutela uste dugu.

Ezinbestekoa ikusten dugu Euskarari ematen diogun denboraren inguruko hausnarketa bat egin behar dugula eta horrela, Euskara maila baxuago duten ikasleei Euskara erabiltzeko aukerak areagotu behar ditugula.(Eskolaz kanpoko ekintzak, liburutegia, kirola....)

. Hizkuntza Proiektuaren ebaluazioa. Zer lortu dugu?

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna aztertzean, hizkuntza guztiak ebaluatzean: ahozko ulermena, ahozko adierazpena, idatzizko ulermena, idatzizko adierazpena hartuko ditugu kontuan.

-LHko zikloetan, dimentsio bakoitzak zer balio duen zehaztuko da.

-LHko 4. mailako ikasleei eginiko Ebaluazio Diagnostikoa aztertuta emaitzek -edozein hizkuntzatan eta dimentsiotan ahuleziarik adieraziz gero, dimentsio hori indartzeko hainbat erabaki hartuko dira, eta hori guztia Hobekuntza Planak jasoko du.

Hobekuntza Planean proposatuko dena guztion artean egin beharko dugunez, LHko arlo guztietako programazioek islatuko dute dimentsio horiek nola landu eta ebaluatu.

Arlo eta ikasgai guztietan bezala, ezinbestekoa da hizkuntzen ebaluazioa hiru urratsetan egitea

1. Hasierako ebaluazioa: Ikasleak aurreko zer ezagupen dituen baloratzen duena. Abiapuntua hartuko da.
2. Ikaste-prozesuaren ebaluazioa: Ikaste-prozesu osoan zehar egiten dena kontuan hartzen da,,ez azken momentuan soilik. Ebaluazio hezitzailearen markoan, prozesu horretatik jasotzen diren datuen bidez, beharrezko aldaketak aztertuko dira heziketa-prozesuan.
3. Azken ebaluazioa: Ikas unitatea bukaeran zehaztuko da neurgarria den, ebaluazio mota horretan ikasle bakoitzari zenbaki bat esleitzen bazaio, errubrika jakin batean oinarrituta egon beharko da.

HIZKUNTZA PROIEKTUAREN JARRAIPENA

Hizkuntza Proiektuaren jarraipena egiteko batzordearekin jarraituko dugu.

Batzordea

Zuzendaritza taldea, pedagogia taldea.

Noiz bildu

Hilabetean behin, gai honi buruz tratatzeko

Asteazkenero pedagogia taldea batzartzen da, eta hala badagokio, eta beharrezkoa ikusten bada, hizkuntza proiektua ere aztertuko da.

ANEXO I

IRAKURKETA PLANA (2019-2?)

1. SARRERA

Ikasleei irakurtzeko gaitasuna garatzen laguntzeko, eskolan hartuko diren erabaki guztiak dokumento erabilgarri batean jaso behar dira; dokumentu hau gure eskolako Irakurketa Plana izango da. Irakurketa Plana ikasleen irakurketa-gaitasuna hobetzeko da, batez ere, baina irakurketaren gainean irakasleek nahiz hezkuntza-komunitateko gainerakoek egiten duten lana gidatzeko balio behar izango du.

Plan hau ikasleen Hizkuntza Komunikaziorako konpetentzia garatzeko ahaleginean diseinatu denez; irakurketaren ulermena garatzeari buruzko ekintzak proposatzeaz gain, irakurriz gozatzea ere ezinbestekoa dela ez dugu ahaztu.

Bestalde, ikasleen irakurtzeko gaitasuna garatzeko ezinbestekoa da denak elkarrekin koordinatuta eta programatuta lan egitea. Hori dela eta, Zentroko Irakurketa Planaren zereginza zera da, eskolak irakurketari ematen dion tratua antolatu eta artikulatzea, helburu argi eta zehatzetan oinarrituta. Horretarako, eskolako beste dokumentu batzuetan, hala nola, Hizkuntz Proiektuan hartutako erabakiak kontuan hartu ditugu.

Irakurketa Plana garatzeko, lehenengo eta behin gure eskolako **testuingurua** aztertu dugu eta bide batez, **eskolako ibilbidea**. Ondoren, praktikaren gaineko gogoeta, hau da, **diagnostikoa** egin dugu. Horretarako, hainbat informazio iturri erabili ditugu: eskolako egunerokotasunean egiten diren jardueren barne hausnarketa, kanpoko ebaluaziotik jasotako emaitzen azterketa, Hezkuntza Saitetik datozen jarraibideak... Diagnostiko horretan oinarrituta hobetu behar diren alderdiak identifikatu ditugu eta behar diren hobekuntzak ikusita, **ekintzen programazioa** taula batean isladatu dugu. Dena den, egokitzapenak etengabekoak izango dira irakurketa ikaskuntza prozesu osoan. Amaitzeko, **eranskin** batean, eskolan egiten diren ekintza guztien laburpena eta bestelako dokumentuak gehitu ditugu.

Plan errealista bat zehaztu dugu, eskolako ohiko praktikatik gehiegi urrunduko ez dena, ikastetxe osoak onartu eta aplikatu dezan bermatzeko. Bestalde, proposatuko den Irakurketa Plana moldagarria eta aldagarria izan behar da, unean uneko zenbait aldaketari eta alderdiri egokitzeko.

2. TESTUINGURUA

Ikastetxeak kultura-aniztasuna du ezaugarri, familien jatorriari dagokionez. Hizkuntzari dagokionez, % 100ek ez du euskara ezagutzen, ezta erabiltzen ere. Gainera, legezko tutoreek gutxi parte hartzen dute eskolako bizitzan. Oro har, espektatiba txikiak dituzte, eta, kasu askotan, bertaratze irregularraren ondorioz, errendimendu akademiko txikia izaten dute. Gainera, familien mugikortasunak ikasturtean zehar ikasleen altak eta bajak ohikoak izatea eragiten du.

Miribilla ikastetxe publikoa Vitoria-Gasteiz kaleko 5. zenbakian dago, Miribilla auzoan, Ibaiondo barrutian, eta Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzen ditu.


San Frantzisko ikastetxe zaharrea sortu zen eta 2004an, Zabala ikastetxearekin bat egin ondoren, San Francisco-Zabala izena hartu zuen.

Hasieratik hizkuntza bi eredu izan ditu, A eta D ereduak. Gaur egun A eredu eskolan desagertzeaz dago 6. mailako gela bakarria dagoelako.

Beraz, 2024/2025 ikasturtetik aurrera D ereduko ikastetxea izango da.

Lehen Hezkuntzako 4. mailan 2020/2021 ikasturtean egindako ebaluazio diagnostikoaren analisiak batez bestekoaren azpitik dauden emaitzak erakusten ditu, batez ere hizkuntza-gaitasunari dagokionez; beraz, gure helburua hobekuntza izango da. Izan ere, euskara gainerako funtsezko gaitasunak ikastea ahalbidetzen duen komunikazio-hizkuntza da.

3. ESKOLAKO IBILBIDEA



4. ESKOLAKO PRAKTIKA DIDAKTIKOEN ANALISIA (DIAGNOSTIKOA).

		<i>0.maila</i>	<i>Hasierako maila</i>	<i>Erdiko maila</i>	<i>Maila aurreratua</i>
IRAKURTZEN IKASI	HIZKUNTZA ARLOAK			Hartu diren erabakiak: Metodologiari dagokionez, testu ezberdinekin kontaktuan jartzea HH tik LHra testuen sekuentziazioa zehaztuta. Honekin batera konzientzia fonologikoa, fonetika, hiztegia HHn hasi, eta LHn jarraitu jariorasuna eta ulermena lantzen, beti ere eskolan zehatutako testu sekuentziazioari begira.	
	HIZKUNTZAKOAK EZ DIREN ARLOAK			Irakurketa-idazketari buruzko irizpideak adostu dira: -Eguneroko bizitza. -Gizarte zientziekin lotutako testuak. -Natur-zientziekin lotutako testuak. -Hizkuntza matematikoa.	
	ESKOLA LIBURUTEGIA			Liburutegia erabiltzen da irakurtzen ikasteko jardueretarako. Gela guztietan liburutegia dago, kontsultatrako zein irakurketa ludikoa egiteko. Bibliomovil ere badago, Gela barruko liburutegia Eskolako liburutegitik zein ikasleek beraiek egindako produkzioetatik elikatzen da.	

IKASTEKO IRAKURRI	CURRICULUMEN IKASGAIAK		Ikasteko irakurketa garatzen laguntzeko gogoeta egiten hasi gara, eta eskolan zehaztutako testu sekuentziazioari esker, hizkuntzak berak beste arloekiko harremana beti eduki behar du.		
	HIZKUNTZA IKASGAIAK		Ikasteko irakurketa garatzen laguntzeko gogoeta egiten hasi gara. HHn konzientzia fonologikoa, aurre-irakurketa (testu norabidea, motrizitate fina, trazo... ipuinlandia) Testu sekuentziazioa egin da Lehen Hezkuntzan eta horrekin testu motak, egiturak, lexikoa, gramatika eta ulermena lantzen dira.		
	ESKOLA-LIBURUTEGIA		Ikasteko hainbat jardura antolatzen dira liburutegian: ipuinlandia mediateca, idazleekin solasaldiak, auzoko liburutegia bisitatzea... Banakako irakurketa.		
IRAKURZALETASUNA GARATU	CURRICULUMEN IKASGAIAK		Nahiz eta ez den planteatu irakurtzeko zaletasuna garatzeko jarduerarik, hizkuntzakoak ez diren ikasgaietan, gela barruko liburutegian eta ikasleek eginda, hainbat produkzio egon behar dira beste arloekin lotuta, eta kontsultarako		

			baliogarriak izango direnak.		
	HIZKUNTZA IKASGAIK		Hizkuntzetan, egiten dira zenbait jarduera, eta hizkuntzen arteko koordinazioa egiten hasi gara. Eskolako testu sekuenziazioa hizkuntza guztietarako baliogarria delako.		
	ESKOLA-LIBURUTEGIA		Astean behin arratsaldean liburutegia zabalik egoten da. Ikasleek etxera eraman dezakete liburua irautzeko. HHn ere, ostiralean eramaten dute liburua eta astelehenean ekarri.		
FAMILIE N PARTE- HARTZEA		Familiei orientazioa ematen zaie seme-alaben irakurketa prozesuan parte hartzeko era aktiboan.			
INGURU AREKIKO LOTURA		Auzoko liburutegira hurbilpena. Ingurua ezagutzeko baliabide ezberdinak martxan jarri dira: kartelak, planoak, ibilbideak, hainbat dekodifikazio mota...			
PRESTAK UNTZA				Klaustro osoak hartu du parte irakurketaren inguruko prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan. Hala ere, geletara eramatea izango da hurrengo pausua.	